

---

# INFORMAZIO KORPORATIBOA Erregistroa eta Estatistika

---

2018ko txostena

---

2019ko uztaila

---

## AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
TRAMITATUTAKO ESPEDIENTEAK .....	4
<b>Banaketa, espediente motaren arabera .....</b>	<b>4</b>
BIZTANLEEN ERROLDA .....	5
<b>Banaketa, mugimendu motaren arabera.....</b>	<b>5</b>
DOKUMENTUEN SARRERA ERREGISTROA.....	6
<b>Banaketa, hartzailearen arabera.....</b>	<b>6</b>
<b>Barne Erregistroaren banaketa, sarbidearen arabera.....</b>	<b>7</b>
<b>Banaketa, barne hartzailearen arabera .....</b>	<b>8</b>
<b>Banaketa, hilabeteen arabera .....</b>	<b>9</b>
EDIKTU TAULA .....	10
<b>Banaketa, iragarlearen arabera .....</b>	<b>11</b>
BARNEKO MEZULARITZA ZERBITZUA.....	12
POSTA.....	12
<b>Banaketa, hilabeteen arabera .....</b>	<b>12</b>
<b>Banaketa, tipologiaren arabera .....</b>	<b>13</b>
<b>Banaketa, tipologiaren eta hilabeteen arabera .....</b>	<b>14</b>
KANPOKO MEZULARITZA .....	14
<b>Banaketa, hilabeteen arabera .....</b>	<b>14</b>
<b>Banaketa, norakoaren arabera .....</b>	<b>15</b>
JAKINARAZPENAK "etxebizitzan".....	15
<b>Banaketa, hilabeteen arabera .....</b>	<b>15</b>
ARETO NAGUSIAN LAGUNTZA EMATEA .....	16
EZKONTZAK .....	16
<b>Banaketa, hilabeteen arabera .....</b>	<b>16</b>

## SARRERA

Informazio Korporatiboko Zerbitzua bi unitatek osatzen dute, Erregistroa eta Estatistika eta Artxiboa, baina txosten hau lehenbizikoari bakarrik dagokio. Atxiboak bere txostena idazten du, haren jarduera oso espezializatua baita eta bereiz tratatu behar baita.

2018an zehar Erregistro eta Estatistika unitateak polibalentzia finkatu du funtzionamendu eredu gisa. 2017an hasi ginen eredu hori ezartzen, eta horretarako, prestakuntza eskaini da zerbitzuarekin loturiko pertsona guztiek beharreko gaitasuna izan dezaten, haren barneko eginkizun eta funtzio guztiak behar bezala betetzeko, eta gaur egun esan dezakegu helburu hori bete egin dela jada.

Horrez gainera, kudeaketa elektronikoa ezartzeko bidean aurrera egin dugu eta lan egiteko modu berri horretarako prestatzen eta egokitzen jarraitu dugu.

Datozen orrialdeotan zerbitzuaren jarduerari buruzko daturik azpimarragarrienak jaso ditugu.

## TRAMITATUTAKO ESPEDIENTEAK

Atal honetan, urtean zehar bideratu diren espedienteek buruzko datu kuantitatiboak jaso dira. Batzuen eta besteen konplexutasuna askotarikoa da, baina ez dugu horien azterketa kualitatiborik egingo.

Guztira **10.802** espediente tramitatu ditugu, eta haien artean Biztanleen Erroldarekin lotutako **6.671** espedienteak nabarmentzen dira: Alta emateko **2.764** espediente eta Etxebizitza aldaketako **3.907** espediente.

### Banaketa, espediente motaren arabera

Alta Biztanleen Erroldan	2.764
Alta Errolda sozialean	42
Bizileku aldaketak	3.907
Bidegabeko inklusioagatiko bajak	15
Inskripzioa iraungitzeagatiko bajak	4
Errolda eta lurralde ziurtagiri bereziak	422
Beste Administrazio Publiko batzuek eskatutako errolda informazioa	228
Biztanleen Erroldarekin loturiko komunikazioak	3.056
Biztanleen Udal Erroldarekiko hainbat eskaera	297
Erregistroarekiko hainbat eskaera	26
Itsasontzien erregistroa	1
Izatezko bikoteen erregistroa (ziurtagiriak)	1
Ezkontzak	34
Administrazio kontratazioa	1
Dokumentu garbitzea	4
<b>Guztira</b>	<b>10.802</b>

## BIZTANLEEN ERROLDA

Biztanleen Erroldaren eguneratze etengabeak **14.300** mugimendu eragin ditu, guztiak Estatistikako Institutu Nazionalarekin egiaztatuta, hileroko fitxategi trukearen bitartez.


### Banaketa, mugimendu motaren arabera

Jaiotzagatiko altak	451
Ez-egitezko altak	270
Bizileku aldaketagatiko altak	3.137
Heriotzagatiko bajak	577
Bikoizteagatiko bajak	2
Bidegabeko inklusioagatiko bajak	692
Bizileku aldaketagatiko bajak	1.883
Inskripzioa iraungitzeagatiko bajak	41
Datu pertsonalen aldaketa	2.682
Lurralde datuen aldaketa	27
Bizilekua aldatzeagatiko aldaketa	3.900
Izen ematea berritzeagatiko aldaketa	444
Bizilekua baieztatzeagatiko aldaketa	194
<b>GUZTIRA</b>	<b>14.300</b>

Datu horiek ikusirik, udalerrri barruko mugikortasuna azpimarratu behar dugu, bizileku aldaketei dagokiena baita zifrarik altuena (**3.900**), gainditu egiten duelako beste udalerrri batzuetatik datozen Alteen kopurua (**3.137**).

Estatistikako Institutu Nazionalarekin egiten den fitxategi aldaketaren ondorioz zehazten da Biztanleria Kopuru Ofiziala, urte amaieran Errege Dekretuz<sup>1</sup>, onartzen dena; **2018ko urtarrilaren 1ean**, Irungo biztanleria **61.983 biztanlekoa** zen.

<sup>1</sup> 1039/2017 Errege Dekretua, abenduaren 15eakoa, Udal erroldaren azterketaren ondorioz zenbatu diren 2017ko urtarrilaren 1eko biztanleria datu berriak ofizialtzat aitortzen dituena. (EAO 2017/12/29)



## DOKUMENTUEN SARRERA ERREGISTROA


2018an **38.249** idazpen egin dira agirien Sarrera erregistroan. Jarraian azaltzen dira daturik esanguratsuenak.

### Banaketa, hartzailearen arabera

Erregistroan Udalera zein beste herri administrazio batzuetara zuzendutako idazkiak sartzen dira. 1997. urtetik hona, hitzarmenak dauzkagu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Estatuko Administrazio Orokorrarekin. HAZen administrazio horietarako edozeinetarako aurkez daitezke idazkiak, lege-balio guztia dutenak.

Ezaugarri horiek kontuan hartuta, idazkiak bi sail handitan sailkatzen dira: jasotzailea Udala dutenak, **31.209**, eta kanpoko jasotzailearen bat dutenak, 2018an **7.040**, guztiazkoaren %19.


Beste administrazio batzuetara zuzendutako **7.040** eskaerak honela banatzen dira: **5.135** Eusko Jaurlaritzara zuzenduak; **1.026** Gipuzkoako Foru Aldundira; eta **637** Estatuko Administrazio Orokorrera eta **62** Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatera.



### Barne Erregistroaren banaketa, sarbidearen arabera.

Udalera bideratzen diren idazkiek eta eskaerek lau sarbide desberdin dituzte:

HAZ erregistroa	26.862
Erregistro Orokorra	3.074
Erregistro telematikoa (Web personala)	7.671
Beste herri administrazio batzuetako erregistroak	642



Esan behar da Erregistro telematikoa gero eta gehiago erabiltzen dela eskaeren sarbide bezala eta, 2017an gertatu zen bezala, 2. sarbidea izan da, HAZen ondotik.

Erregistro Orokorrean jasotzen eta baliozkotzen dira Erregistro Telematikoko sarrerak (**7.671**), eta han erregistratzen dira zuzenean Udaletxera postaz iristen diren idazkiak (**3.074**) eta beste herri administrazio batzuetatik iristen direnak (**642**). 2018an guztira **11.387** eskaera erregistratu ditugu.

Sartzeko lehenengo bidea HAZ da, baina Erregistro Orokorra da erregistro guztiak gainbegiratzeko ardura duena, zuzenak direla egiaztatzeko eta horiek dagozkien udal administrazio unitateetara bana daitezen prestatzeko; horren arabera, 2018an **31.209** idazki kudeatu ditugu.

### **Banaketa, barne hartzailearen arabera**

Banaketa barneko hartzaileen arabera aztertuta, udal arlo hartzaileetara bideratutako idazkiak kontabilizatu ditugu eta ikusi dugu Gizarte Ongizate Arloa dela eskaera kopuru handiena jasotzen duena, gutzizkoaren % 20,40.




Hona hemen banaketa zehatza, arloen eta administrazio unitateen arabera:

HARTZAILEA	Idazki kop.	%
- Alkatetza	106	0,34
- Artxiboa	18	0,03
- Gizarte Ongizatea	6.357	20,40
- Kontsumoa	412	1,32
- Kontratazioa	275	0,88
- Kultura eta kirola	1.687	5,41
- Hezkuntza eta Gazteria	3.527	11,30
- Estatistika eta Hirugarrenak	2.300	7,37
- Euskara	1.271	4,07
- Ogasuna eta Ondarea	4.109	13,20
- Kontu hartzailetza nagusia.	184	0,59
- Mugikortasuna, Bide Publikoak eta Obrak	1.532	4,91
- Antolamendua, Informatika eta Erosketak	428	1,37
- Parte hartzea eta Gardentasuna	161	0,52
- Langileria, Prebentzioa eta Garbiketa	726	2,33
- Udaltzaingoa eta Bizikidetzak	2.968	9,51
- Erregistroa	94	0,30
- Ama Xantalen egoitza	58	0,19
- HAZ	279	0,89
- Idazkaritza eta Zerbitzu Juridikoak	235	0,75
- Diruzaintza eta Diru bilketa	281	0,90
- Hirigintza eta Garapen iraunkorra.	4.210	13,50

### Banaketa, hilabeteen arabera


Irailean erregistratu dugu idazki kopururik handiena, 4.627, eta abuztuan, berriz, txikiena, 2.285.



## EDIKTU TAULA


Udaleko ediktu taula Informazio Korporatiboko zerbitzuaren ardura da eta, horren ondorioz, administrazio unitateek eta beste herri administrazio batzuek eskatuta argitaratzen ditugu bertan iragarkiak. Geroago, eskatzaileari itzultzen dizkiogu, iragarkia jendaurrean egon den denbora egiaztatuz.

Ediktu Taula Bakarra (ETB) abian jarri zenetik, eta baliabide horretan argitaratzea nahitaezkoa denez, beste administrazio batzuek bidaltzen duten ediktu kopurua nabarmen jaitsi zen 2017an, baina 2018an mantendu egin da.



## Banaketa, iragarlearen arabera

2018an 245 udal ediktu kudeatu ditugu eta 78 beste administrazio batzuetakoak, hurrenez hurren, guztizkoaren % 78 eta % 22.



Udal ediktuak honela daude banatuta arloen arabera: Idazkaritza, Zerbitzu Juridikoak eta Kontratazioa da iragarki gehien argitaratu dituen arloa, 78; eta hurrena, Langileria Bulegoa, 46rekin.

Udal arloa	Iragarki kop.
Gizarte ongizatea, Hezkuntza eta Gazteria.	27
Kultura eta kirola	24
Euskara	0
Ogasuna, Sustapen Ekonomikoa eta Plan Estrategikoa	6
Mugikortasuna, Bide Publikoak eta Obrak	0
Langileria	46
Udaltzaingoa eta Bizikidetz	0
Idazkaritza, Zerbitzu Juridikoak eta Kontratazioa.	78
Informazioaren Gizartea eta Herritarren Parte hartzea	29
Hirigintza eta Ingurumena	35

Kanpoko iragarleen artean, ikusi dugu beste udal batzuk direla udaleko ediktu taularen kanpoko erabiltzaile nagusiak.

Iragarlea	Iragarki kop.
Udalak	31
Aldundiak	14
Uraren Euskal Agentzia	5
Irunvi	11
Eusko Jaurlaritza	2
Administrazio Zentrala	5

## BARNEKO MEZULARITZA ZERBITZUA

Erregistro laguntzaileak / jakinarazleak dira dokumentazioa udal bulegoetan banatzen dutenak. Egunero joaten dira udal bulego guztietara eta, beharrezkoa denean, erakunde autonomoetara, hiriko beste erakunde batzuetara, banketxeetara eta abarretara.

Ez daukagu eramaten den dokumentazioari buruzko datu estatistikorik, baina esan dezakegu lan hori funtsezkoa dela udal jardunerako.

## POSTA


Erregistro eta Estatistika Unitatean erakunde osoko postaz arduratzen gara. Erregistro laguntzaileek / jakinarazleek egunero jasotzen dute sartzen den posta eta kudeatzen dute ateratzen dena (sailkapena, emate agiriak egitea eta Posta bulegora eramatea).

Ez daukagu sartzen den postari buruzko daturik, ez da kontabilizatzen eta, banatu egiten da soilik, gehiena Erregistrora, sarrera emateko eta, gainerakoa, zuzenean administrazio unitateetara.

Jarraian ematen ditugun datuok Udalak egiten dituen posta bidezko bidalketei dagozkie: 2018an **76.227** kontabilizatu ditugu.


### Banaketa, hilabeteen arabera

Bidalketa kopururik handieneko hilabeteak, martxoa eta maiatza dira, udal zergen ordainagiriak bidaltzen direnean.




### Banaketa, tipologiaen arabera

Bidalketarako modurik erabiliena posta arrunta (% 54) eta administrazio jakinarazpenak dira (% 40).



## Banaketa, tipologiaren eta hilabeteen arabera




## KANPOKO MEZULARITZA


Mezularitza da Erregistro eta Estatistika unitatean kudeatzen dugun beste zerbitzu bat; astean bitan prestatzen ditugu Donostiarako bidalketak eta, udal arloen eskaeren arabera, beste leku batzuetarako zerbitzu bereziak: horiek guztiak horretarako kontratatua dagoen enpresa batek egiten ditu.

## Banaketa, hilabeteen arabera

Maiztasun finko bat duen zerbitzua dela kontuan hartuta, ez dago alde handirik hilabete batetik bestera.




### Banaketa, norakoaren arabera



### JAKINARAZPENAK "etxebizitzan"

Jakinarazleek **1.739** jakinarazpen eraman dituzte interesdunen etxebizitzetara; Zeregin honen xedea da fede-ematea Udalak jaulkitako dokumentu bat entregatua izan dela.

### Banaketa, hilabeteen arabera



## ARETO NAGUSIAN LAGUNTZA EMATEA

Erregistro laguntzaileak / jakinarazleak Osoko Bilkuretara, protokolo ekitaldietara, bileretara eta ezkontzetara joaten dira eta haiek arduratzen dira Areto Nagusia prestatzeaz, megafoniaz –Osoko Bilkuretan izan ezik–eta behar den material guztia prestatzeaz. 2018an **62** saiotara joan dira, horietarik **12** Osoko Bilkura, **36** kultur, protokolo eta abarretako ekitaldi, eta **19** ezkontza ekitaldi izan dira.

## EZKONTZAK

Aparteko atala merezi du Udaletxean egiten diren ezkontza zibilen gaiak, Erregistro eta Estatistikako Unitatea delako administrazio kudeaketa egiteko arduraduna (eskaerak jasotzea, erreserbak, aktak idaztea,...) bai eta ekitaldian laguntza ematekoa ere (ospatzaileari laguntzea, megafonia, musika). Horrek esan nahi du ezkontzaren bat egiten den egun bakoitzean administrari bat eta erregistro laguntzaile bat han izaten direla, areto nagusian.

2018an, **49** ospakizun gauzatu dira **15** egunetan: **14** larunbat, **4** ostiral eta ostegun **1**.

### Banaketa, hilabeteen arabera

